

IRU ALABA

(Kontetan)

- Euki zeuen etxe baten 3 alaba Irurek euki zeren defektoa berbetan, sisipasa antzeko zeuzer. Da an egon zien irurek noz ezkonduko, da iñor etzekien etortzen.

Da alako baten etor zan mutil bat, ezkondu gure deuela, da andria elejitan. Da etxien esan dotsen amok eta aitek:

- Zuek egongo zarie ixil-ixilik, irurek egongo zarie josten, fin josten. Da etorriko da mutile da elejiduko deu berak gure deuen.

Eta irurek josten: bata bordetan, bestia josten da mutille be eureri begire. Alako baten neska batek esaten deu:

- Alise apultu jate!! Da bestiek esan dotsen:

- Tolonpillotxu bet emoion!!

Da irugarrenak esan zeuen:

-Amak etan deu itilik egoteko, ta etin itilik eon.

Da esan dotsen gizonak:

- Irurok dire taralak! -esan dotsen.

- Eta zu tueltoa!

Mari Meabe eta Marga Elorriaga